



Gernikako topaketa antifaxistak 2023

GERNIKAKO TOPAKETA ANTIFAXISTAK :: 12/04/2023

[Euskara]

Datorren apirilaren 22rako hainbat kolektibok Topaketa Antifaxista antolatu dugu Gernikan. Helburua, faxismoak gaur egun dituen aurpegi desberdinak eta faxistizatze prozesuak aztertzea da; baita horiei aurre egiteko moduez eztabaidatzea.

Euskal Herriko hainbat erakunde eta mugimendutako pertsonak gonbidatu ditugu, beren borroka esparrua modu argian kapitalismoa gainditzeko ildoan kokatzen dutenak. Era berean, Turkiako (Anti imperialist Front), Bartzelonako Errepresioaren aurkako Batzordeko eta Dublin Republicans Against Fascismeko pertsonak ere parte hartuko dute.

Arrats partean, omenaldia egingo diogu Kontxa Arana «Rita» borrokalari antifaxista internazionalistari. Gaztetatik faxismoaren aurkako militante aktiboa izan zen eta horrek erbestera eraman zuen. Bere konpromisoak Nikaraguara ere eraman zuen, non sandinismoarekin aktiboki borrokatu zuen.

Gure asmoa Gernika beti izan den antifaxismoaren sinbolo irudia berreskuratzea da, alegia bere askatasunen alde borrokan ari diren herriena; Gernikako ondarea eduki politikoz husten tematzen diren egungo erakunde burgesen diskurtsoa nahi dugu zuzendu. Gure aitona-amonek gurutze gamatuz hornituta etorri ziren hegazkinetako bonbak jasan zituzten, Dombasseko biztanleria zibila erasotzen dutenen swastika berdinak. Gure arbaso abertzale, komunista eta anarkisten belaunaldi hark armak hartu behar izan zituen Alemania naziak eta Italia faxistak babestutako faxismo espainiarrari aurre egiteko.

Gaur egun, erakunde burgesek «bakearen sinbolo» izendatu nahi dute Gernika eta, aldi berean, lotsagabe, AEBetako inperialismoaren eta NATOren beso armatuaren ankerkeriak txalotu eta horiekin elkarlanean aritzen dira.

Guretzat bakea ez da gatazkarik eza, baizik eta justizia sozialean, elkartasunean eta berdintasunean oinarritutako gizartean gauzatzen dena. Ez dago bake posiblerik nazioarteko harreman inperialistetan oinarrituta eta gabetuen esplotazio-esparrua onartuta, non batzuen ongizatea besteen heriotzan oinarritzen den; hau da neoliberalismoaren eta geopolitikoki partaide garen mendebaldeko gizartean “bakea”.

Eta Gernika erabiltzen ari dira, desitxuratuta, txandakako erakunde eta

politikari profesionalak. Are okerrago, esparru zapaltzaile hori gainditu nahi duten borroka iraultzaileak gaitzesteko erabiltzen dute eta, besteak beste, Ukrainako erregimen naziaren irudia zuritzeko.

Sinboloak berreskuratzeko unea da, imaginario kolektibo antifaxista, antikapitalista eta iraultzaile bat sortzeko unea, batasun eta borroka globalaren perspektiba bihurtuko dena. **Gernika antifaxista, internazionalista, menperaezina eta errebeldearen ondarea berreskuratzeko garaia da; mundua errotik eraldatu nahi duten ideologiengatik, konpromiso eta borroka emanzipatzailearen nazioarteko sinbolo... Gernika.**□□□

[Castellano]

Para este próximo 22 de abril diversos colectivos hemos organizado una jornada antifascista en Gernika. El objetivo es debatir sobre las facetas que presenta el fascismo en la actualidad, los procesos de fascistización y como hacerles frente.

Hemos invitado a personas de diferentes organizaciones y movimientos de Euskal Herria que sitúan inequívocamente su practica diaria de lucha en la necesaria superación del marco capitalista. También participarán personas de Turquía (Anti imperialist Front), Comité antirrepresivo de Barcelona, y Dublin Republicans Against Fascism.

Durante el día rendiremos homenaje a la luchadora antifascista, internacionalista Kontxa Arana «Rita», militante activa desde muy joven contra el fascismo lo que la llevó al exilio. Su compromiso la condujo también a Nicaragua donde colaboró activamente con el sandinismo .

Nuestra intención es recuperar a Gernika como lo que siempre ha sido: símbolo del antifascismo, de un pueblo en lucha por sus libertades, contrariamente a las instituciones burguesas actuales que se empeñen en vaciar de contenido político el legado de Gernika. Nuestros abuelos y abuelas sufrieron las bombas de las avionetas con cruces gamadas, idénticas a las que lucen los que atacan a la población civil del Dombass; aquella generación de abertzales, comunistas, anarquistas, tuvieron que tomar las armas para hacer frente al fascismo español respaldado por la Alemania nazi y la Italia fascista.

Hoy en día las instituciones burguesas pretenden declararla como símbolo de «paz», al tiempo que aplauden y colaboran activamente con las atrocidades del imperialismo Estadounidense y de su brazo armado, la OTAN.

Para nosotras la paz no es la ausencia de conflicto, sino la consecución de la justicia social y de unas relaciones basadas en la solidaridad y la igualdad. No hay paz posible basada en unas relaciones internacionales imperialistas y aceptando el marco de explotación de las desposeídas, en la que el bienestar de unas se sustenta en la muerte de otras; esta es la paz del neoliberalismo y de las sociedades occidentales de las que geopolíticamente formamos parte.

Y Gernika está siendo utilizada, distorsionada, por las instituciones y políticas profesionales de turno para condenar las luchas que pretenden superar este marco; entre otros, para blanquear la imagen del régimen nazi de Ucrania.

Es el momento de recuperar símbolos, de ir creando un imaginario colectivo antifascista, anticapitalista y revolucionario que se traduzca en unión y perspectiva de lucha global. Es hora de recuperar el legado de la **Gernika antifascista, internacionalista, indómita y rebelde; aquella que fue símbolo internacional de compromiso y lucha de las ideologías que desean transformar el mundo de raíz.**

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/gernikako-topaketa-antifaxistak-2023